

## **EZ OHIKO UDALBATZARRA**

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2011ko ekainaren zortziko gaueko bederatziak eta hamabost minutu direnean, bildu dira, ez ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa, Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti, Zinegotzia ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

### **LEHENENGO PUNTUA:**

**ONDARE ONDASUNEI ETA SOZIATEETAN PARTE HARTU IZANARI BURUZKO AITORPENA ETA BATERAEZINTASUN ETA JARDUTEKO EZINTASUNARI BURUZKO ARRAZOIEN AITORPENEN EREDUEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Alkateak Eudeletik bidalitako ondare ondasunei eta sozietateetan parte hartu izanari buruzko aitorpena eta bateraezintasun eta jarduteko ezintasunari buruzko arrazoien aitorpenen ereduaren berri ematen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Jose Luis Albisua Lasa eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

**BIGARRENGO PUNTUA:**  
**SAN ANTONIO JAIETARAKO EGITARAU ETA AURREKONTUAREN**  
**ONARPENA.**

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Ñaki Labaka zinegotziak dio aurtengo San Antonio jaietarako aurrekontua 6.500 €-takoa dela, ondorengo kontzeptutan banatuta:

- 1.- Kupela: 1.150 €
- 2.- Antzerkia: 400 €
- 3.- Izer eta Alabier: 600 €
- 4.- Gorriti: 450 €
- 5.- Hamaiketakoa: 600 €
- 6.- Trikitilariak: Lidia eta beste batzuk: 200 €
- 7.- Ume jolasak: 400 €
- 8.- Herri kirolak: 1.740 €
- 9.- Besteak: 200 €
- 10.-Megafonia: 150 €
- 11.- Dantzariak: 300 €

**GUZTIRA- 6.190 €**

Aurrekontu prestatua: 6.500 €

San Antonio jaiak ekainaren 10, 11, 12 eta 13an izango dira gehi ekainaren 18an Akerra elkarteak antolatzen duen usakume tiraketa.

Ekainaren 10ean, ostiralean, txupinazoa, herri afaria, Play-Back emanaldia eta Kupela taldea.

Ekainaren 11an, larunbatean, bertso-triki poteoa bertsolari eta trikitilariekin, antzerkia eskolan Atala Antzerki Taldearekin eta ondoren, Izer eta Alabier trikitilariak.

Ekainaren 12an, igandean, meza, herriko dantzariak txistulari eta trikitilariekin, Herri Kirolak eta ondoren kalejira Lidia eta Xabier trikitilariekin.

Ekainaren 13an San Antonio egunean, Meza San Antonio ermitan, hamaiketakoa trikitilariak girotuta, jarraian Gorriti eta bere abereak eta ondoren ume jolasak eskolako patioan.

Ekainaren 18an, Jose Luis Ezamaren oroimenez XIX. Usakume tiraketa egun guztian zehar Bildingo zelaietan, Gipuzkoako Kopa.

Beraz, Alkateak ondoko proposamena onartzea proposatzen du:

Lehena.- 2011 ekitaldiko San Antonio jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- 2011 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.452.00.06 kontu sailari 6.190 euro egozte.

Hirugarrena.- Jaietako egitarauari zabalpena ematea esku programen bitartez, Hitza aldizkarian argitaratuz eta herri irratiaren bitartez.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Jose Luis Albisua Lasa eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, San Antonio jaietako aurrekontua eta egitaraua onartuta geratzen dira.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.